



ETXARRI-ARANATZ

# BANDOA

JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA  
ETXARRI ARANAZKO ALKATEAK

JAKINARAZTEN DU

## GUAIXE TA BELEIXE SUSTATZEAREN ALDE

Bierrik fundazioak diru-laguntzak galdu dituela ikusirik, eta gertaera lazgarri horrek Guaixe eta Beleixe hedabideen biziraupena arrisku bizian utzi duela ikusirik, Etxarri Aranazko udalak, bando honen bidez, zera:

### ADIERAZTEN DU:

- ✓ Oro har, euskara taldeak eta euskal kultur elkarteak ezinbesteko tresna direla, euskara eta euskal kultura garatzeko eta sustatzeko. Herri-komunikabideak, bereziki, tresnarik behinenak direla eskualdeen kohesio sozialerako, herritarrengandik gertu daudelako, eta gure hurbileko errealitateari hitza ematen zaiolako, bertako ikuspegia arlo guztietan emanez.
- ✓ Arlo ekonomikoan, komunikabideak bertako komertzioen erakusleho direla, ekonomia sustatzen dutela (*beleixeguaixe* txartela), eta, gainera, enplegua sortzen dutela: kazetariak, esatariak, banatzaileak...
- ✓ Bierrik Fundazioak euskararen eta euskal kulturaren alde egiten duen lana beharrezkoa dela Sakanan, eta nabarmentzekoa dela oztopo guztien gaineratik urteotan egindako bidea.
- ✓ Guztion ahalegina behar-beharrezkoa dela, Guaixe eta Beleixe herri-komunikabideek iraun dezaten. Etxarriarrok eta sakandarrok ezin dugu urtetan egindako ahalegina alferrik galtzea utzi.

### SALATZEN DU:

- ✓ Nafarroako Administrazioa euskararekin egiten ari den hizkuntza politika murriztailea.
- ✓ Hortaz, eskaera egiten dio Nafarroako Gobernuari euskararekiko hizkuntza politika alda dezan, eta herri komunikabideei eman beharreko babesa eta laguntza eman diezaion.

### KONPROMISOA HARTZEN DU:

- ✓ Bierrik Fundazioaren iraupenaren alde ahal dituen baliabide guztiak paratzeko.
- ✓ 2000 *esker* bazkide-kanpainaren alde sustapen-lana egiteko.

### DEIALDIA LUZATZEN DIE ETXARRIAR GUZTIEI:

- ✓ Bierriken bazkide egin daitezten, Guaixe eta Belexeren etorkizuna gure esku baitago.
- ✓ Euskal kulturaren alde eta euskarazko komunikabideen alde lan egin dezaten.

Etxarri Aranatz, 2012ko martzaren 9an.  
Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

